BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

3890

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 16koa, Garraioetako zuzendariarena, salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen 2011ko uztailaren 27ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematen duena.

Diru-laguntzak emateko jardunean errespetatu behar den publikotasun-printzipioa betetzeko, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko uztailaren 27ko Aginduak 10.3 artikuluan xedatzen duenez, diru-laguntza guztiak emandakoan onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Hortaz, aurreko lerroaldean zehaztutakoaren arabera, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko uztailaren 27ko Aginduan aurreikusitako laguntzak zeini eman zaizkien argitara ematea, Garraioetako zuzendariak bere eskumenak erabiliz eman dituen ebazpenen arabera. Onuradunen zerrenda ebazpen honekin batera doa, eranskin gisa.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 16a.

Garraioetako zuzendaria,
MIKEL DÍEZ SARASOLA.

ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko uztailaren 27ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunak

Onuraduna	Diru-laguntza
Transportes Gacela Irán Sdad. Coop. Ltda.	460,00
Autobuses La Unión, S.A.	1.675,00
Cia Tranvia San Sebastián-Tolosa	1.862,50
Limpiezas Nervión, S.A.	1.210,00
Basklur Kargo Koop.	1.975,00
Koop. Larrialdiak	1.500,00
Arcón Desescombros, S.L.	1.562,50
Autopullman San Sebastián, S.L.	2.150,00
Alegrias Hnos.,S.A.	3.500,00
Olano Tomsa, S.A.	1.500,00
Olatz Lejardi Oregi	454,86
Autobuses San Millán, S.A.	675,00
Coop. Transporte Puerto Pasajes	3.750,00
Autobuses de Lujua, S.L.	1.750,00